

Kostuen egitura

Gure kostuen artean garrantzitsuenetako bat lokala da, lokal handi bat behar dugu makinak hor edukitzeko eta gure altzariak sortzeko, eta denda lokalean bertan edukitzeko ere, hau da, bi zatitan banatuta egon behar da. Alokairua hilabetero ordaindu beharko dugu, beraz, gastu finko bat da. Han telefono bat eduki beharko dugu bezeroaren datuak galdetzeko eskaera furgonetan hara joateko eta abar.

Makinak gure altzariak egiteko lagungarri izango dira eta hori hasieran ordainduta nahikoa izango da, baina azken momentuko ustekabe bat gertatzen bada aurreztuta eduki beharko dugu zerbait. Horrez gain, urtean behin makinaren mantenimenduko azterketa pasa behar da makinak egoera onean dauden edo ez jakiteko eta horrek gastu bat suposatzen du.

Furgoneta edo kamio txiki bat erosi beharko dugu hasieran gure eskaerak etxeetara eramateko; nahiz eta ibilbide txikiak izan, honek gasolina ere beharko du, beraz, gasolina da beste kostu finkoetako bat.

Beste gastuetako bat hasieran garrantzitsua izango dena, publizitatea da. Gure enpresa jendeak ezagutzeko eta bertan erosteko publizitatea egin behar dugu eta orriak inprimatzea edo telebistan agertzeak dirua balio du.

Langileen soldata ere kostu finkoa izango da, hilabetero ordaindu beharrekoa bere bi paga extrekin.

Kostuak	urte hasieran ordaindu beharrekoak	hilero ordaindu beharrekoak (gastu finkoak)
lokala		500€/hilero
makinak	2700€+mantenimendua 700 urtean	
furgoneta/kamioi txikia	2000€	ITV: 47€/2 urtero
gasolina		900€/hilean
langileen soldata		1200€/hilero pertsonako
telefonoa		20€/hilean

publizitatea	50€ hasieran ordainduko ditugu eta gero gehiago beharrezkoa den edo ez.	
Guztira		36.937€/urtero gutxi gora behera